BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1430

EBAZPENA, 2014ko martxoaren 19koa, Industriako sailburuordearena, 2014ko ekitaldirako Nazioartekotze Bekak emateko deialdia publiko egiten duena.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko apirilaren 13ko Aginduak (2011ko apirilaren 26ko EHAA, 78. zk.), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2013ko martxoaren 20ko Aginduaren bidez (2013ko apirilaren 5eko EHAA, 65. zk.) aldatutakoak, Nazioartekotze Beken Programa arautzen du.

Agindu horren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, 2014ko ekitaldirako bekadunen hautaketarako deialdia egin behar da, horretarako beharrezko diren arauak emanez.

Beraz, erreferentziatzat hartu den Aginduaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da, Nazioartekotze Beken Programa arautzen duen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko apirilaren 13ko Aginduan ezarritakoa betez, 2014ko ekitaldirako beken deialdia egitea.

Bigarrena.– Emango diren bekak.

Gehienez ere, 100 Nazioartekotze Beka emango dira 2014an.

100 beken onuradunek A modalitatea egingo dute, eta, ezarritako baldintzak betez modalitate hori bukatzen duten hautagaien artetik, gehienez ere 80 pertsona hautatu ahal izango dira B eta C modalitateak egiten jarraitzeko. Hautatutakoak honela banatuko dira: B modalitatea 65 pertsonak egingo dute gehienez ere, eta C modalitatea, gehienez ere 15 pertsonak. Horrez gain, 15 ordezko hautatuko dira, gehienez, B eta C modalitateetarako, eta ordezko horiek bekaren lehen bi hilabeteetan gerta daitezkeen uko egiteak edota beste edozein gertaerak eragindako hutsuneak bete ahal izango dituzte, Nazioartekotze Zuzendaritzak hala irizten badio, programa arautzen duen 2011ko apirilaren 13ko Aginduaren 19.1a artikuluan xedatutakoa betez.

Hirugarrena.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdiko bekak finantzatzeko, zenbateko hauek erabiliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 4/2013 Legean xede horretarako zehaztutako aurrekontu-kredituen arabera:

1.– A modalitaterako, gehienez ere, 120.000 euro baliatuko dira, 2014 ekitaldian.

2.– Bestalde, B eta C modalitateetarako (biak batera), bi milioi laurehun eta hirurogeita hemeretzi mila eta zortziehun euro erabiliko dira (2.479.800); kopuru hori, zehazki, honela banatuko da:

2014ko ekitaldia: 940.000 euro.

2015eko ekitaldia: 706.300 euro.

2016ko ekitaldia: 833.500 euro.

Zehaztuta dagoen zenbatekoa handitu egin daiteke, eman behar diren beken zenbateko osoa kontuan hartuta, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzean agortu ez den aurrekontu-baliabiderik izanez gero, eta diru-laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen. Horrelako egoeraren bat gertatuz gero, horren berri emango da Industria sailburuordearen ebazpen bidez.

Laugarrena.– Eskabideak aurkezteko baldintzak, lekua eta epeak.

1.– Eskatzaileek, Nazioartekotze Beken Programa arautzen duen Aginduan ezarritako bekak lortu ahal izateko, Agindu horren 3. artikuluan xedatutako baldintzak bete behar dituzte.

2.– Programa horretan parte hartuko duten hautagaiek eskabideak betetzean eta aurkeztean, Nazioartekotze Beken Programa arautzen duen Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoa beteko da, bai eta eskatutako dokumentu osagarriak aurkeztean ere. Alde batetik, eskabideak bitarteko telematikoen bidez aurkeztu ahal izango dira; horrelakoetan, www.euskadi.net/industria webgunea baliatuko da eskaera-eredua lortzeko eta Administrazioan aurkezteko. Bestetik, www.euskadi.net/industria webgunean beteko edo grabatuko dira eskabide-eredua eta formularioak, eta gero, inprimatu ondoren, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren dagokion lurralde-ordezkaritzan aurkeztu beharko da, zuzenean edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutako moduari jarraiki.

3.– 7.5. artikuluan eskatutako dokumentuek, 3. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen dutenek, deialdiaren epea amaitu baino lehenagoko data izan beharko dute.

4.– Deialdi honen eranskinean, programa arautzen duen Aginduaren 7. artikuluan aipatzen den eskabide-eredua dago.

5.– Adierazitako bekak lortzeko eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2014ko apirilaren 30ean amaituko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko sailburuari, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 19a.

Industriako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GARCÍA DE MOTILOA UBIS.

NAZIOARTEKOTZEKO BEKAK

2014

Eskabide-zenbakia:

BEKADUNEN ESKABIDE-ORRIA

Izena:									
1. Abizena:		2. Abizena							
NAN:		Jaioteguna:		Sexua:	H ☐	M ☐			
Lurraldea:		Udalerria:							
Herria:		PK:							
Kalea:		ZK:		Pisua:					
Tfnoa:		Mugik:		Emaila:					

A) Unibertsitate Titulazioa

Unibertsitatea:				
Titulazioa:				
Karreraren hasiera-urtea:		Karreraren amanera-urtea:		
Agiririk aurkeztu ditu	Bai ☐	Ez ☐		

B) Prestakuntza osagarria

B.1. Kanpo merkataritzako edo anteko gai bateko masterrak do ikastaroak, 100 ordu gutxienez (kreditu-kopurua ordu bilakatu indarreango legediaren arabera)

IKASTAROAREN IZENBURUA	ERAKUNDEA	ORDUAK / KREDITUAK	Agiriak aurkeztu ditu	
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐

"De conformidad con lo establecido en el artículo 5 de la ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de Datos de Carácter Personal, les informamos que los datos de este formulario pasarán a formar parte de un registro informático del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco."

NAZIOARTEKOTZEKO BEKAK

2014

C) Esperientzia profesionala Kanpo Merkataritzan eta/edo Kudeaketan, 6 hilabetekoa gutxienez

ENPRESA	LANPOSTUA	IRAUPENA	Agiriak aurkeztu ditu	
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐
			Bai ☐	Ez ☐

D) Ingelesaz gain, honako hizkuntza hauen azterketa egin nahi du:

Honako hauen artean aukeratu beharko da: alemaniera, arabiera, mandarin-txinera, frantsesa, italiera, poloniera, portugesa eta errusiera.

1.

(e)n, 2014ko aren (e)an

Sinadura:

NAZIOARTEKOTZEKO BEKAK

2014

Behean sinatu duenak jauna/Andrea

Honako hau adierazten du:

a) Eskabidean Curriculum Vitae-n eta gainerako agirietan adierazitako informazioa benetakoa del aeta egiarekin bat datorrela.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura antzeko ezaugarriak dituen bestelako laguntzarik edo bekarik jaso ez izana, hau da, ICEX erakundeak, Administrazio Autonomikoek, Merkataritza Ganberek, Turespañak, EBko Merkataritza Sustapeneko Erakundeek edo antzeko bestelako erakundeek ematen dituztenak, ezta eskatutako titulazioa lortu ondoren Erakunde Multilateraletan edo enpresetan 6 hilabeteko edo gehiagoko praktikak atzerrian egiteko aukera eman dion beste edozein beka ere.

c) Ez duela sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik zigor administratibo edo penalik jaso, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 50.5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen Azken

Xedapenetatik Seigarrenean duen idazkeraren arabera.

.....(e)n, 2014ko .....aren .....(e)an

Sinadura:

NAZIOARTEKOTZEKO BEKAK

2014

DOKUMENTAZIOA

- NANaren fotokopia.
- Nortasun agirikoaren tamainako bi argazki, izen-abizenak atzealdean idatzita.
- Curriculum vitae.
- Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea frogatzen duen ziurtagiria, eskabidea aurkezten den unetik zenbatzen hasi eta gutxienez aurreko 12 hilabeteetan, edo epe txikiagoan ikasketak direla medio izangaiak Euskal Herritik kanpoan bizi izan badira.
- 1) Lortutako unibertsitate-tituluaren fotokopia konpultsatua, edo 2) titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, edo 3) ikasketa-espedienteko nota, titulazioari dagokion proba orokorra gainditu izana edo/eta titulua lortzeko eskubideak ordaindu izana adierazten duela.
  Atzerrian edo publikoak ez diren Espainiako zentroetan lortutako tituluek homologatuta egon beharko dute, eskabideak aurkezten diren unean.
- Egindako ikastaroen eta lanbide-esperientziaren ziurtagirien fotokopia konpultsatua. Ez dira kontuan hartuko eskabidea aurkezterakoan egiaztatu gabe dauden ikastaro edo lanbide eskarmentuak.
- Zinpeko aitorpena Aginduarekin bat etorriz (inprimakia eskabidearekin batera doa).
- Mediku-ziurtagiri ofiziala, bekadunaren zereginak eta betebeharrak behar bezala betetzeko eragozpenen bat jartzen duen gaixotasunik ez duela zehaztuz.

Frantsesaz edo ingelesaz bestelako hizkuntzaren batean idatzita dauden dokumentuak aurkezten badira, horien itzulpena ere aurkeztu beharko da EAEko edozein hizkuntza ofizialetan.

Jatorrizko dokumentazioa edo horren fotokopia konpultsatuta aurkeztu beharko da, eskabidea bide telematiko bidez aurkezten den kasuetan izan ezik.